

# ADUNAKO UZTARTZA UDAL ATERPETXEA ETA JATETXE-TABERNA USTIATZEKO EMAKIDA ARAUTUKO DUTEN EZAUGARRI TEKNIKOEN AGIRIA

## 1.- KONTRATUAREN HELBURUA

### KONTRATUAREN HELBURUA

Agiri hau bultzatu duen kontratuaren helburua da Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna emakida bidez ustiatzea, administratzea, mantentze-lanak egitea, zaintzea eta, oro har, kudeatzea.

Aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren kudeaketa eta ustiapen lanetan sartuko dira agiri honetan aipatutako prestazio eta jarduerak, eta baldintza administrazio berezien agirian jasotako gainerakoak.

Administrazio emakida-emaileari berez dagozkion eginkizunak Udalak berak beteko ditu zuzenean.

## 2.- ERAIKINAREN DESKRIPZIOA

Emakidaren helburu den eraikina Adunako Herriko Plazan dagoen "Uztartza" izeneko eraikina da. Deskripzio hauxe dagokio:

Erdisotoko solairuan bi lokal daude:

- Lokal bat: eraikinaren ekialdean, 113,63 m<sup>2</sup>-ko azalera itxia du eta barrutik behe solairuarekin komunikatua dago.
- Beste lokala: eraikinaren mendebaldean dago eta 71,09 m<sup>2</sup>-ko azalera itxia du. Bien artean 184,72 m<sup>2</sup>-ko azalera osatzen dute.

Solairu honetan kokatutako bi lokalak honela banatuak daude:

- Jangela..... 88,70 m<sup>2</sup>

- Komunak.....	8,00 m <sup>2</sup>
- Korridorea.....	9,20 m <sup>2</sup>
- Sukaldea.....	27,30 m <sup>2</sup>
- Eskailerak, biltegia.....	2,80 m <sup>2</sup>
- Biltetgia.....	14,00 m <sup>2</sup>
- Segurtasuneko atartea.....	2,00 m <sup>2</sup>
- Igogailuaren makineria.....	3,80 m <sup>2</sup>
- Galdaren gela.....	9,40 m <sup>2</sup>

**Azalera erabilgarria, guztira..... 165,20 m<sup>2</sup>**

→ Behe solairuan, eraikinaren mendebaldeko zatia, 117,76 m<sup>2</sup>-ko azalera itxia duena, Udalaren jabetzakoa da.

Solairu honetan honako lokalak daude:

- Taberna.....	82,80 m <sup>2</sup> .
- Tabernako komunak.....	3,70 m <sup>2</sup> .
- Arduradunaren bulegoa.....	9,30 m <sup>2</sup> .
- F atartea.....	5,40 m <sup>2</sup> .

**Azalera erabilgarria, guztira..... 101,20 m<sup>2</sup>**

→ Estalkipeko solairua oso-osorik Udalaren jabetzakoa da, 240,81 m<sup>2</sup>-ko azalera itxia du eta barrutik behe solairuarekin komunikatua dago.

Solairu honetan honako lokalak daude:

- Logelak.....	173,00 m <sup>2</sup> .
- 1. aldagela.....	18,90 m <sup>2</sup> .
- 2. aldagela.....	5,00 m <sup>2</sup> .
- 3. aldagela.....	20,60 m <sup>2</sup> .

- Atartea..... 7,10 m<sup>2</sup>.

**Azalera erabilgarria, guztira..... 224,60 m<sup>2</sup>.**

Eraikitako azalera osoa, 543,2 m<sup>2</sup> guztira, Adunako Udalaren jabetzakoa da.

52 ohe daude erabilgarri, honako honela banatuta:

- 26 oheko logela
- 13 oheko logela
- 8 oheko logela
- Ohe bikoitzeko logela
- Ohe bikoitz eta ohe gehigarriko logela

Agiri honi II. eranskin gisa atxikita doaz emakidaren helburu diren instalazioen banaketa-planoak.

### 3.- INBENTARIOA

Oinarri hauei, eta oinarrien zati modura, kontratu honetan Udalak jarritako ondasunen inbentarioa erantsi zaie I. eranskina izenarekin. Hala ere, zerrenda hori eguneratu daiteke esleipendunarekin kontratua sinatzean.

Esleipendun berriarekin egiten den kontratuko behin betiko inbentarioan jasotako ondasunak, esleipendunari emandako egoera berean itzuli beharko dira kontratua bukatutakoan. Emakidadunak, erabilpenaren ondorioz hondatu edo apurtu diren ondasunak ordeztu egin beharko ditu derrigorrez, emakida amaitzean behar bezala itzuli daitezten.

### 4.- ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK.

Aterpetxean ostatu hartzeko erreserbarik izanez gero, harrerako ordutegi hau beteko da derrigorrez: 09:00 – 24:00 astelehenetik ostiralera, eta 11:00 – 24:00 asteburu eta jaiegunetan.

Jatetxe-taberna eta aterpetxea irekitzeko eta ixteko ordutegia, indarrean dagoen araudian ezarritakora egokituko da. Logelen eremuan, ostatu hartuta dauden pertsonen atsedena errespetatu egin beharko da 23:00ak eta 07:00ak bitartean.

Jatetxe-tabernak udalerriko gainontzeko ostalaritza establezimenduentzako ezarritako ordutegi bera izango du, eta terrazako zerbitzuak ere tratamendu bera jasoko du. Jendearentzako zabalik egongo da gutxienez 09:00 – 24:00 bitartean, astelehenetik ostiralera, eta 11:00 – 24:00 bitartean asteburu eta jaiegunetan. Dena den, ordutegi hori zabalagoa ere izan daiteke kontratu honen esleipendunak halakorik eskaintzen badu.

Esleipendunak egutegi bat egin dezake, Adunako Udalaren adostasunarekin, aterpetxeak edota jatetxe-tabernak urtean egingo dituen opor egun eta ordutegiarekin. Dena den, gehienez ere 15 egun izango dira eta Adunako urteko jaietan ezin izango dira hartu, inolaz ere.

Jatetxe-tabernak ordutegi zabalagoa izango du Adunako urteko jaietan. Irekitzeko eta ixteko ordutegia Udalak erabakiko du urtez urte.

## 5.- EMAKIDA KUDEATZEKO EREDUA ETA HARTUKO DITUEN ZERBITZUAK

5.1.- Adunako Uztartza aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko emakidaren helburua da eskatzen duten guztiei zerbitzua ematea: norbanakoei, gazte edo kirol arloko taldeei, elkarteei, kultur edo hezkuntza arloko taldeei, ... Emakidadunak berak zuzenean egingo du ustiapena, eta gizarte, hezkuntza, kultur nahiz turismo aktiboko programak garatzeko behar diren baliabide eta bitarteko guztiak izan beharko ditu.

5.2.- Jatetxe-tabernan, halaber, aterpetxean ostatu hartuta ez dagoen edonori emango zaio tabernako eta jatetxeko zerbitzua; besteak beste, eguerdian otordua eskainiko da honako egutegi honen arabera:

Bazkaria: Egunero.

Afaria:

Ekainetik irailera egunero, astelehenetan izan ezik.

Urritik maiatzera egunero, astelehen, astearte eta asteazkenetan izan ezik.

Afaria jaiegun eta jaiegun-bezpera guztietan emango da.

Lizitatzailleek ordutegia zabalagoa eskaini dezakete beren proposamenetan; halakorik gertatuz gero, esleipendunak eskainitako ordutegiari jarraituko zaio.

Aterpetxea ezin izango da itxi asteko atsedenaldiaren aitzakiaz. Jatetxe-tabernaren asteko atsedenaldia astelehenean egingo da, 17:00etatik aurrera.

5.3.- Tabernako instalazioetan, halaber, oinarrizko elikagaiak jarriko dira salgai taberna irekia dagoen ordutegian.

5.4.- Eskola-haurrentzako menua: Adunako herri eskolako ikasleei eman beharko zaie zerbitzu hori.

5.5.- Taberna irekia dagoen bitartean, esleipendunari dagokio udal pilotalekuko argi-fitxak banatzeko eta aldagelen erabilpen-txandak ezartzeko ardura, baita horiek irekitzea eta ixtea ere, Udalak gai honen inguruan ezartzen dituen arauak betez betiere.

5.6.- Debekatua dago Uztartza aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren kudeaketa integrala ustiatzeko kontratua edonola lagatzea, eskualdatzea edo errentan ematea, izan ere, zerbitzua zuzenean ustiatzeko ardura izango baitu kontratatzaileak.

Emakidadunak edo kontratistak ezaugarri teknikoen agirian edo baldintza administratibo berezien agirian ezarritako xedapenak ez betetzeak ez dio inolako erantzukizunik eragingo Adunako Udalari.

**5.1.- Zerbitzu ustiapenaren emakidadunak honako erantzukizunak hartuko ditu bere gain:**

a) Emakidan hartutako **instalazio guztien zaintza orokorra**, baldintza administratiboen agirian xedatutakoaren arabera; eta bereziki:

- Aterpetxearen nahiz jatetxe-tabernaren funtzionamenduan antzematen duen edozein anomaliaren berri ematea Adunako Udalari.
- Erabiltzen ez direnean, gela guztiak itxiak edukitzen saiatzea.
- Adunako Udalak eta Administrazioako beste organo batzuek aterpetxeko eta jatetxe-tabernako instalazioen erabilpenari buruz emandako arauak betearaztea.
- Instalazio guztiak txukun eta garbi edukitzea, terraza barne. Jendeak erabiltzeko eremuak ezin izango dira biltegi gisa erabili; hau da, inolako oztoporik gabe eduki behar dira.
- Emakidadunak ezin izango du erabili aterpetxera eta jatetxe-tabernara zuzendua ez dagoen aretorik. Aparteko kasuren batean bestelako eremu edo instalazioak erabili nahi izanez gero, Udalari jakinarazi beharko zaio, eta honen baimena eskuratu.

b) Emakidaren helburu diren azalera guztiak eta bertako altzariak **egunero garbitzea** eta erabilpen nahiz desinfekzio egoera onean edukitzea.

Baloratu egingo dira, bai garbiketa produktuak erosteari dagokionez eta bai produktu horien erabilerari dagokionez, ingurumen irizpideak jasotzen dituzten proposamenak.

c) **Aterpetxeko eta jatetxe-tabernako zerbitzuak kudeatzea;** hain zuzen ere, esleipendunak bere arrisku eta zorian ustiatuko ditu zerbitzu horiek. Hori horrela, kontratistak kontratuaren iraunaldi osoan administratu beharko du azpiegitura orokorra, eta bere ardura izango da egonaldiak erreserbatzeko eta erabiltzailea artatzeko zerbitzua, ostatu eta mantenu zerbitzua eta aisialdiko nahiz turismo aktiboko jardueren zerbitzua kudeatzea. Baldin eta jarduera horiek Adunako Udalak sustatuak badira, emakidadunak udal zerbitzu teknikoekin koordinatu beharko du eta, horrelakoetan, Udalak ezarritako jarraibideak, arauak eta prozedurak jarraitu beharko ditu.

Emakidan hartutako instalazioak kudeatzeko egiten diren lan guztietan, kasuan kasuko xedapen eta arau tekniko guztiak beteko dira, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzekoa den europar araudia bezalaxe. Esleipendunari dagokio horiek guztiak betetzeko erantzukizuna.

**d) Egonaldiak kudeatzea eta erreserbatzea, erabiltzailea artatzea eta sarrerak kontrolatzea:**

- Kontratatu nahi den zerbitzua Adunako aterpetxean emango da, 52 pertsona hartzeko modukoa berau. Egonaldiak kontratistak kudeatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko turismo-aterpetxeak antolatzeko 200/2013 Dekretuan ezarritako artezpide eta arauak betez uneoro, horiekin bateragarriak diren gainerako arauak bezalaxe.
- Bezeroak hartzeko eta erreserbak egiteko ordutegia jatetxe-tabernaren ordutegi bera izango da gutxienez. Aparteko kasuren batean jendea bestelako ordutegietan ere hartu beharko da, baina horrelakoetan, enpresari alde aurretik jakinarazi egingo zaio aparteko egoera hori bultzatu duen arrazoia.
- Aterpetxeko egonaldiak 30 egunekoak izango dira asko jota ere, Udalaren iritziz larrialdikoak edo halabeharrezkoak diren kasuetan izan ezik.
- Enpresa esleipendunak arduradun bat izango du, gutxienez, egonaldien erreserba kudeatzeko eta jendea artatzeko, eta pertsona horrek, baldintza administratiboen agirian adierazi bezala, gai izan behar du bi hizkuntza ofizialetan (euskeraz eta gaztelaniaz) komunikatzeko.
- Ustiapenaren emakidadunak erabiltzaileei zuzenean kobratuko dizkie zerbitzuak. Horretarako, egokien iritzitako sistema prestatuko du, eta proiektu teknikoan adierazi.
- Adunako Udalak bere programa propioak egiteko zuzenean kontratatzen dituen zerbitzuek lehentasuna izango dute gainerako guztien gainetik, baldin eta 40 eguneko aurretiaz eskatzen badira, Udalaren iritziz larrialdikoak edo halabeharrezkoak diren kasuetan izan ezik.

**e) Ostatu eta mantenu zerbitzua:**

- **Ostatu zerbitzua:** Ostatu zerbitzua hala eskatzen duten guztiei emango zaie, 52 pertsonako kopurua gainditu gabe: norbanakoei, gazte edo kirol arloko taldeei, elkarteei, kultur edo hezkuntza arloko taldeei, ...

Proiektu teknikoan prezioak zehaztu egingo dira denboraldi, ostatu-  
emate, egun eta pertsonako. Gazte-txartela duten pertsonen, taldeen

eta aterpekideen deskontuak ere adierazi egingo dira.

Enpresa esleipendunari dagokio instalazioa txukun edukitzeko ardura, eta hondamendirik gerta ez dadin eta gainerako erabiltzaileei eragozpenik gerta ez dakien ziurtatzeko erantzukizuna.

Aterpetxeko maindireak eta bestelako lotarako arropak aldatzeko garaia heltzen denean, horiek eskuratzeko orduan ingurumen irizpideak aintzat hartu beharko dira. Horretarako, lehenik eta behin, udal-zerbitzuekin harremanetan jarriko da enpresa, ingurumen irizpide horiek zeintzuk izango diren adostu ahal izateko.

- **Mantenu zerbitzua:** Jatetxe-tabernan emango da. Prezioak proiektu teknikoan zehaztuko dira, eta III. eranskinean adierazitakoak izango dira, hain zuzen.

Enpresak janari hotza prestatuko die, oinarrizko menuaren prezioa aldatu gabe, 24 orduko aurretiaz hala eskatzen duten aterpetxeko erabiltzaileei (norbanakoak zein taldeak), bidaia-poltsatan eramateko.

Tabernako eta jatetxeko zerbitzuez balia daitezke aterpetxean ostatua hartuta ez dauden pertsonak edo taldeak ere, baina jangelako zerbitzua aterpetxean egun baterako edo gehiagorako ostatua hartuta dauden pertsonen eta taldeei lehentasunez emateko obligazioa du enpresa kontratistak.

Gosariak, bazkariak eta afariak emateko ordutegiak aterpetxeko zuzendaritzak erabakiko ditu. Ordutegi horiek aldatzeko aukera egongo da, aterpetxeko okupazio mailaren arabera, edo garraiobidearen irteeraren arabera, edo iristen diren talde antolatuen arabera.

Erabiliko diren elikagaiei buruzko betebeharrak:

- Menuetako lehenengo platerren zerrendatik 1ek gutxienez eskualdean ekoizitakoa eta garaikoa izan beharko du.
- Jatetxeko kartan agertzen diren platerrei dagokionez, lehenengo platerretatik eta bigarren platerretako 1ek gutxienez eskualdean ekoizitakoa eta garaikoa izan beharko du. Hau da, kartan agertzen diren 2 platerrek, gutxienez, baldintza horiek bete beharko dituzte.
- Aipatutako baldintzak betetzen dituzten platerrek ikur edo bereizgarria markatuta izango dute, bezeroek modu errazean antzemateko moduan.



- Herri-eskolako ikasleei ematen zaien jangela-zerbitzua: astegunetan ikasleei prestatzen zaizkien menuei dagokionez, asteko egun batean, gutxienez, eta platerretako batean, bertako eta garaian garaiko elikagaiak erabili beharko dira.
- Animalia-jatorriko elikagaiak eskuratzeko beste irizpideetarako bat gertutasuna izango da. Hori dela eta, lizitatzailleek proiektu teknikoan alderdi hau zehaztu egingo dute, eskuratuko dituzten produktuen jatorria zein izango den zehaztuz. Alderdi hau ere baloratua izango da.
- Zerbitzatutako elikagai edo plater batek ere ez du izango formulazioan genetikoki eraldatutako organismoetatik datozen osagaiak izateagatik etiketatuta egon behar duen produkturik, genetikoki eraldatutako elikagai eta pentsuei buruzko 1829/2003 EE Araudia eta genetikoki eraldatutako organismoen (GEO) trazabilitateari eta etiketatuari y horiekin produzitutako elikagai eta pentsuei buruzko 1830/2003 EE Araudia betez.

Aipatutako kopuruak gainditzen dituzten eskaintza teknikoak epaimahaiak baloratu egingo ditu (tabernan eskaintzen diren pintxo, platerak, eta abarretan bertako eta garaian-garaiko elikagaiekin prestatutako jakiak eskaintzearekin zerikusia duten proposamenak barne). Balorazio horretan kontuan izango dira elikadura jasagarriarekin eta osasuntsuarekin bat datozen irizpideak kontuan hartzen dituzten lehiatzaileen proposamen gehigarriak. Gai honekin zerikusia duen zerrenda orientagarria eranskin moduan jasota dago.

Eskualdean ekoiztutako elikagaiei dagokionez, esleipendun suertatzen den enpresari Udalak “Jan Tolosaldea” egitasmoari buruzko informazioa erraztuko dio (Tolosaldean produzitzen diren produktuen eta ekoizleen zerrenda bidaliko zaio enpresari) eta berak egitasmo horren inguruko informazioa aztertuko du, plegu hauetan jasotako baldintzak betetzeko orduan nahiz bere proposamenean gehitutako zenbait hobekuntza aurrera eramateko baliagarria suertatuko baitzaio. Gai honetan izan ditzakeen zalantzak argitzeko laguntza eskainiko zaio esleipendunari eta Udala, gai honetan, besteak beste, Tolomendi landa garapenerako elkartearekin lankidetzan arituko da.

f) **Animazioko eta turismo aktiboko aisialdi eta kirol arloko jarduerak**, esleipenean ondorioztatzen denaren arabera.

g) **Eraikinaren** (jatetxe-taberna eta aterpetxea bakarrik) **mantentze, zaintze eta konponketa lanez arduratzea eta lan horiek eragindako gastuak ordaintzea.** Baita kontratu honen helburu diren zerbitzuen funtzionamendu egokirako beharrezkoak direnak ere, baldintza administratiboan agirian jasotakoaren arabera.

h) **Mantentze-lanak eta konponketak:** Jatetxe-tabernako eta aterpetxeko makinaren eta etxetresna elektrikoaren mantentze-lanak, bai prebentziozkoak eta bai konpontzezkoak, emakidadunaren konturakoak izango dira.

Udalaren jabetzako ekipo eta instalazioetan gertatutako matxuren berri emango dio, berehala, emakidadunak Udalari.

Adunako Udalak eskubide osoa izango du aldian-aldian makinaren, altzarien, tresneriaren eta oro har, instalazioen funtzionamendua ikuskatzeko. Ondoren txostena egingo du, bai instalazioei buruz eta bai funtzionamenduari buruz.

Txosten horretan adierazitako okerrak zuzentzera behartua dago emakidaduna, horrek eragin ditzakeen gastuak bere gain hartuta. Adierazitako akatsak edo gabeziak berehala ez konpontzeak, kontratua indargabetzeko bidea emango dio Udalari, eta emakidadunak ez luke izango kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.

Denen erabilerarako instalazioetan (argindarra, ura, gasa, eta abar) aldaketaren bat dakarren konponketa oro Adunako Udalari jakinaraziko dio. Urari, argiztapenari eta berokuntza-sistemari lotutako konponketak egitea suertatzen denean, aurrezpen eta eraginkortasun energetikoko irizpideak ezarri beharko dira. Horrelakoetan, Udala puntualki informatu beharko da eta Udalaren adostasuna lortu beharko da aldez aurretik.

Instalazioetan egin behar diren obra eta aldaketa guztiek Adunako Udalaren baimena beharko dute aldez aurretik.

Era berean, beharrezkoa denean, instalazioak pintatu egin beharko dira, bai

emakidadunaren ekimenez edo bai Adunako Udalak emandako agindua betez; eta gastu hori emakidadunak hartuko du bere gain.

### **TRESNAK ETA ALTZARIAK BERRITZEA:**

Adunako Udalak emakidadunaren eskura jarriko ditu kontratua sinatzeko orduan instalazioetan dauden altzari eta tresna guztiak, I. eranskinean zehaztutakoak.

Kontratua bukatzean, material hori funtzionamendu-egoera onean itzuli beharko da, erabilerak eragindako balio-galera arrunta besterik gabe; hori horrela, prebentziozko nahiz zuzentzeko mantentze-lan egokia egin beharko du kontratistak.

Emakidadunaren edo enpresa kontratistaren obligazioa da I. eranskinean zehaztu diren altzari eta materialetatik emakida-aldian hondatu direnak berritzea. Emakidak bere gain hartuko du instalazio, etxetresna elektriko, ontzi, sukaldeko tresna, makineria, lanabes, luminaria, kanila, sarraila, altzari eta abarretan gertatutako kalteak. Beraz, bere kontura konponduko ditu eta, zerbait galdu bada, berria jarri edo dagokion kalte-ordaina ordainduko du. Emakidadunak egindako hobekuntzek edo konponketek Udalaren jabetzako instalazio, lanabes edo altzarietan hobekuntzak ekarri arren, Udalak ez ditu ordainduko kontratua bukatzean eta hobekuntza horiek Udalaren jabetzara pasako dira.

Kontratua behar bezala garatzeko beharrezkoa den baina Udalak utzi ez duen materiala kontratistaren kontura jarriko da; material hori egoera akasgabean edukiko da eta hondatutako piezarik ezin izango da erabili.

### **FLUIDOAK ETA ENERGIA:**

Kontratu honen helburu diren aterpetxe eta jatetxe-tabernako ur, gas, argindar, telefono eta antzeko kontsumo guztiak emakidadunak ordainduko ditu, lokal horietan ezar daitezkeen instalazioetakoak bezalaxe. Kontratuaren iraunaldian sortutako kontsumo guztiak emakidadunak ordainduko ditu.

Lehengo instalazioak ordeztzerakoan edo berriak ezartzerakoan, energiaren aurrezpen eta efizientzia irizpideak erabiliko dira.

### **LOKALAK GARBITZEA ETA DESINFJEKTATZEA:**

Emakidaren helburu diren lokalen garbiketa –poretak, kristalak, komunak, biltegia, korridoreak eta abar– emakidadunaren kontura izango da; baita zeregin horretan erabiltzen diren materialak eta beharrezko makinak ere. Emakidadunak, bere gain hartutako konpromisoari jarraiki, egunero garbiketa sakona egingo du gelatan, logelatan (erabiltzen ari badira edo erabili egingo badira), komunetan eta jatetxe-tabernan, otorduak zerbitzatzen diren bitartean eta ondoren. Gainera, sukaldeko bazter guztiak egunero garbituko ditu, koiperik pilatu ez dadin eremu horretako lanabes, ganbera, sukalde, labe eta beste inolako elementutan; eta bestetik, ke-kanpaia, aldagelak, biltegiak eta ustiapenaren eraginpeko leku guztiak garbi-garbi edukiko ditu egun osoan zehar.

Emakidadunak jatetxe-tabernako eta aterpetxeko kristal guztiak gutxienez sei hilabetean behin garbituko ditu.

Jatetxeko sukaldeko olio-ontzia husteaz eta zaintzeaz arduratuko da. Erabilitako olio behar bezala baimendutako kudeatzaile baten bitartez kudeatuko du.

Era berean, urtean behin bederen, lokala desinfektatzeaz eta fumigatzeaz arduratuko da emakidaduna; eta hori, zeregin horretarako baimendua dagoen enpresa batek egingo du.

Garbiketarako materiala, erratzak, mopak, zoru-garbigailuak, komuneko papera, garbitzeko gauzak, parasitoak eta intsektuak desinfektatzeko produktuak, eta abar emakidadunak jarriko ditu. Baloratu egingo da ingurumen irizpideen araberrako produktuak eta materialak erabiltzea.

### **HONDAKINAK:**

Emakidadunari dagokio hondakinak Udalak gai horri buruzko araudian ezarritako ordutegian ateratzeko ardura, eta betiere, hondakin mota

bakoitzaren arabera sailkatuz kasuan kasuko edukiontzian (beira, papera, ontzi edo hondakin organikoak, eta gainerako hondakinak).

Zaborra kaleko edukiontzietara eramateko orgak eta ontziak garbi edukiko dira beti, usain txarrik sor ez dezaten.

Logelatako paperontziak, hala nola aterpetxean eta jatetxe-tabernan daudenak, gutxienez egunean behin hustuko dira, eta maizago ere bai, hala behar izanez gero.

Aterpetzeko logelatan bereizgarriak edo antzekoak ipiniko dira, hondakin mota bakoitza nola bereizi behar den adieraziz.

## **INGURUMEN IRIZPIDE OROKORRAK**

- Langileek ura eta energia arduraz erabiliko dute.
- Natur baliabideak aurreztu eta zentzuz erabiltzeko asmoz, aterpetzeko erabiltzaileei zuzendutako aholku-orriak, kartelak edo bestelako euskarriak sortzea baloratuko da.
- Aterpetzeko erabiltzaileek hondakinak murriztu eta sortutakoak egoki bereiztera zuzendutako sentsibilizazio-euskarriak sortzea baloratuko da.
- Aterpetzeko maindireak eta bestelako lotarako arropak aldatzeko garaia heltzen denean, horiek eskuratzeko orduan ingurumen irizpideak aintzat hartu beharko dira. Horretarako, lehenik eta behin, udal-zerbitzuekin harremanetan jarriko da enpresa, ingurumen irizpide horiek zeintzuk izango diren adostu ahal izateko.

i) **Kontratuaren helburu den zerbitzuaren publizitatea egitea,** zeregin horrek eragindako gastuak ordainduz (foiletoak, etiketak, ...), eta Adunako Udalak zehazten dituen logotipoak sartzea. Instalazio batzuetan eta besteetan, esleipendunak eskaintzen dituen zerbitzu eta jardueren prezioak ipiniko dira, erraz ikusteko moduko lekuan. Era berean, zerbitzuari publizitatea emango zaio webgunean, eta hau eguneratua edukiko da.

### **5.2.- Adunako Udalaren ardura izango da:**

- a) Azpiegituren inbertitzea dakarten obra eta hornikuntzen gastuak ordaintzea.
- b) Adunako Udalak eskubide osoa izango du bidezkoztat iritzitako kontrolak egiteko, edo egin daitezzen eskatzeko.
- c) Kontratuaren lehendabiziko bi urteetan, Udala arduratuko da berriro jarri beharrekoak jartzeaz –ontziak, sukaldeko tresnak, lanabesak, luminariak eta antzekoak izan ezik– baina gerta litezkeen konponketak sartu gabe.

## 6.- ZERBITZUAREN PREZIOAK ETA SARRERAK

Jatetxeko menuen eta ostatuaren prezioak Udalak ezarriko ditu III. eranskinean jasotakoaren arabera. Prezio horiek urtero berrikusiko dira, 2019. urtetik aurrera. Berrikuspen horrek Adunako Udalaren onospena beharko du.

Zerbitzuari lotutako gainerako prezioak emakidadunak erabakiko ditu.

Emakidan ezarritako prezioak esleipendunak kobratuko ditu zuzenean; horrek sarrera batzuk eragingo ditu eta, sarrera horiek, emandako zerbitzuak emakidadunari sortzen dion etekinean sartuko dira.

Erabiltzaileek erraz ikusteko moduko lekuan egongo dira prezioak, zerbitzu bakoitzean zer sartzen den adieraziz.

## 7.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

### **SARREREN ETA GASTUEN ERREGIMENA**

Emakida esleipendunaren arrisku eta zorian egindakotzat joko da.

Erregimen ekonomikoari dagokionez, honako baldintzak ezarri dira:

– **Sarrerak:**

Aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren berariazko zerbitzuak emateak sortutako

sarrerak, hala nola beste zerbitzu osagarri batzuek eragindakoak, esleipendunarentzako izango dira oso-osorik; beraz, sarrera horiek sortutako zerga-obligazioak, administratiboak eta beste edozein motakoak betetzeko erantzule bakarra esleipenduna izango da.

Instalazioen erabilera eta ustiapena kaltetu dezakeen egintza edo eragiketarik ez da onartuko, ohiz kanpoko diru-sarrerak lortzeko; beraz, ohikoak ez diren eragiketek Udalaren onespena beharko dute derrigorrez.

– **Gastuak:**

Aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko beharrezkoak diren gastu guzti-guztiak esleipendunaren kontura izango dira. Horietan sartuko dira, besteak beste, langileriaren gastuak, hornikuntzak, mantentze-lan arruntak, garbiketa zerbitzua, segurtasuna, zaharberritzea, altzariak eta izakinak zaharberritzea, hala nola argi, ur, gas eta komunikazio hornidurak, eta baita jardueratik zuzenean etor daitezkeen tributuoak ere.

## 8.- ENPLEGATUAK

Esleitutako lana egiteko enplegatzen diren langileei dagokienez, esleipendunak zorrotasun osoz bete beharko du lan arloan, Gizarte Segurantzaren, ezgaituen gizarte integrazioan, eta laneko arriskuen prebentzioan indarrean dagoen araudia.

Kontratu honetan kontratistari ezarri zaizkion gainerako betebeharrak baldintzatu gabe, kontratistak, derrigorrez, kontratatutako jarduerara bideratutako langileen enplegatzaile gisa jardungo du Entitatearen aurrean, zeren eta langile horiek soil-soilik kontratistaren mende egongo baitira. Honek, hortaz, langileen eginkizun eta jarduera guztiak zuzendu eta koordinatuko ditu, horien aurrean dagozkion antolakuntza, zuzendaritza eta diziplina arloko gaitasunak erabiliz. Era berean, kontratista izango da langile horien lan izaerako eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioen erantzulea.

Kontratistaren funtsezko obligazioa da apartatu honetan jasotako zerbitzuak behar bezala ematea; beraz, obligazio hori ez betetzea kontratua indargabetzeko arrazoia izango da.

## 9.- ERREGIMEN EKONOMIKOA

### ZERBITZUEN PREZIOA

Zerbitzu ezberdinen prezioak aterpetxearen webgunean argitaratuko dira, balizko erabiltzaileek prezio horien berri izan dezaten.

## 10.- EPEA

Aterpetxea eta jatetxe-taberna kudeatzeko eta ustiatzeko kontratuak 7 urteko iraupena izango du. Hala ere, bi aldeek hala adostuz gero, iraupen hori emakida-emaileak ezarritako epeez luzatu ahal izango da, 40 urteko muga gainditu gabe.

Epe hori kontratuan adierazitako dataren biharamunean hasiko da; eta egun horretan, emakidadunak bere gain hartu beharko du, oso-osorik, emakidaren helburua. Aurrez egindako erreserbak errespetatu egin beharko ditu esleipendunak, erreserba horien baldintza ekonomikoak bezalaxe.

Kontratuaren epea betetzean, aterpetxearen eta jatetxe-tabernaren kudeaketa eta ustiapena Udalaren esku geratuko dira berriro. Esleipendunak erraztu egingo du emate hori, ondasunak eta instalazioak kontratuan adostutako egoera berean entregatuz. Esleipendunak eta Udalak, itzulketa hori gauzatu baino hiru hilabete lehenago, jarduketa programa bat adostuko dute entrega hori ahalik eta hobekien egin dadin.

Apartatu honetan araututako epeak ez ditu baldintzatuko kontratuaren aldaketei buruzko gorabeherak izan ditzaketen ondorioak, ez eta kontratua indargabetzeko kausak ere.